

Kolore eta musikaz bete zen herria



Joxe Ramon Unanue prestatzailearekin egon gara

Aurten hasi da BAZpi txirrundulari eskolako infantil eta jubenil mailako mutilak prestatzen. Berarekin ibili diren eta dabilzan txirrundulariekin ere egon gara, Giroan dagoen Iban Maiozekin eta Jon Altuna gaztearekin. /4-5

Ortzadar erraldoi batek Lasarte-Oriako kaleak bete zituen ostiral arratsaldean.

500 dantzari eta antzerki zaleek parte hartu zuten Landaberri Antzerki eta Dantza eskolak antolatutako desfilean. Honetan, eskolako abestia eta hainbat doinu dantzatu zituzten haur, gazte eta helduek.

Izan ere, maiatzaren 15ean, 8. Antzerki eta Dantza Asteari hasiera eman behar zion desfile erraldoia eguraldi txarragatik bertan behera geratu zen eta antolatzaileek ostiral honetan, egitea erabaki zuten.

Helduak eta bigarren astea
Gauetan, berriz, Solaskideen taldeak Alex Telloren zuzendaritzapean, *Mikelenak* lana aurkeztu zuten.

Era honetara, Antzerki eta Dantza Astea aurrera doa eta gaur, bigarren astean sartu da. Egunero dago istorio ezberdinek ezagutzeko aukera. Anima-tu eta hurbildu kultur etxera. •



Desfileko eta lehenengo asteko antzezlanen argazkiak www.txintxarri.info web atarian aurkituko dituzue.



Hirurogeita bost lagun inguru bildu ziren urteurrena ospatzeko bazkarian.

43. urteurren gozoa Palomo Linaresen

Palomo Linares zezenzaleen elkarteak 43. urteurrena ospatu zuen atzo. Zumaburuko parrokian 12:30ean hildako bazkideen omenez egindako meza entzun ondoren, elkartera hurbildu ziren bazkide gehienak. Elkarteko atean ohiko taldeko argazkia egin eta bazkaltzera sartu ziren. Jose Antonio Rey lehendakariak gonbidatu guztiak agurtu eta sukaldariak prestatutako bazkaria bedeinkatu zuen Juan Luis Murua Zumaburuko apaizak. Guztira 65 lagun inguru bildu ziren bazkarian, giro ederrean eta lagunarte paregabean bazkaldu zuten. •

KIROLA /2

**ISU Lehiokak
berriro garaile
Herriko Areto
Futboleko XXVII.
Txapelketan**

KIROLA /6

**Ostadarreko
kirolariak Zegama-
Aizkorri mendia
proban hartu zuten
parte hotza, euria
eta lokatzari
aurre eginez**

Salesianos Urnieta Salesiarrak

FORMACIÓN PROFESIONAL LANBIDE HEZIKETA

Diseinu grafikoa, Inprimaketa, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Diseño Gráfico, Impresión, Mecánica, Electricidad, Electrónica

maiatzak 29, 10:00-13:00
29 de mayo, 10:00-13:00

www.salesianosurnieta.com giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

zatoz ven

ISU Lehioak irabazi du berriro Areto Futboleko XXVII. Txapelketako finala

Larunbatean ospatu zen kiroldegian Herriko Areto Futboleko XXVII. txapelketako finala.

Finala ISU Lehioak eta Izkiña tabernaren artean jokatu zen eta ia bezala ISU izan zen garaile.

Finala oso berdindua izan zen, borrokatua eta tentsio handikoa. Gozatzeko moduko partida izan zen, eta golak ere oso politak. Bina bukatu zen partida eta luzapenera joan behar izan zuten. Luzapenean ez zuten golik sartu eta azkenean penaltietara erabaki zen partida. 6 jaurtiketatik ISUren 5 sarean sartu ziren eta Izkiñak 4 sartzea lortu zuen.

Baina final handiaren aurretik kontsolazioko finala eta ligillako finala ere jokatu ziren.

Kontsolaziokoa Goiz Argi taldeak irabazi zuen. Lau gol sartu zizkion Obelix taldeari, honek berriz bakarra. Lehenengo zatian Goiz Argi agintzen zuen baina hala ere nahiko berdindua zegoen partida. Baina hirugarren gola sartu zuenean, partida sententziatu egin zuen.



Ezkerrean saria jaso zuten Santos Uribe eta Aiora Zulaika. Eskuinekoan berriz, ISU eta Izkiña taldeak partida bukatu ondoren sari a eskutan dutela.



Arg.: Ostadar

Ligillako finalean IOB Hertz Klinikak 5 gol sartu zizkion Viña del Mar taldeari, honek bi egitea lortu zuen. Oso partida, borrokatua eta erritmo bizikoa izan zen. Binako berdinketarekin bukatu zen partida eta luzapenean erabaki zen. IOBk luzapenean lehenengo gola sartu zuenean, Viña del Mar-eko jokalariak, atezain eta guzti gora igo ziren, baina ez zuten irabaztea lortu.

Kirolari onenaren saria

Final handiaren aurretik, urtero bezala Ostadarrek bi sari banatu zituen. Lehenengoa Santos Uribe atleta beteranok jaso zuen. Azken urte honetan txapelketa ugari irabazi ditu Santosek baina antolatzaileek azpimarratu zuten moduan, ez diote saria eman emaitza onengatik, baizik eta gazteentzako eredugarria delako, urteak aurrera joan ahala, kirola egiten jarraitzen du.

Auzolan saria

Pirritx, Porrotx eta Marimoto-

tsek jaso zuten sari hau. Antolatzaileek esan bezala, herriarregatik eta herritarregatik lan asko egin dutelako eman diete saria. Pailazo taldearen lana Ostadarrek defendatzen dituen baloreekin eta filosofiarekin bat egiten duelako eta herritarren bihotzak kolorez margotzen eta irriez betetzen jarraitu dezaten erabaki dute saria ematea. •

Eskola Kirola festa handia larunbatean



Adinaren araberako kirolak egingo dituzte, txikieneak, esate baterako, jolasak.

Lasarte-Oriako 7 eta 16 urte arteko gaztetxoek hitzordua dute larunbatean, maiatzaren 29an, Michelingo kirol gunean, izan ere, Eskola kirola jaialdia ospatuko da.

Antolatzaileek azaldu digutenez, kirol ezberdinak landuko dira adinaren arabera.

Kirolak

Aurrebenjaminek kirol hastapena egingo dute. Pilotalekuan izango da jarduerak eta bi txandatan egingo dira, 10:00etatik 11:15etara, LH2ko gaztetxoek txanda

izango da eta, 11:30etatik 12:45etara, LH1 mailakoena.

Benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako gaztetxoek, berriz, goizeko 9:30etatik aurrera, kirol ezberdinak egiteko aukera izango dute: futbola, herri kirola, saskibaloia, errugbya eta atletismoa.

Maila bakoitzeko txapelketa bat antolatuko da, hau da, maila bereko taldeak lehiatuko dira eta, era honetara, lau txapelketa egongo dira kirol bakoitzeko.

Eta, 13:00ak aldera, maila guztientzat penalti jaurtiketen lehiaketa egingo da.

Honetaz gain, oparien zozketa egingo da festan parte hartu duten guztien artean.

Tenis

Era berean, arratsaldean 16:00etatik aurrera, ikasturtean zehar tenisean ibili diren LH3 eta LH4 mailako benjaminek tenisean egiteko aukera izango dute.

Gonbita

Antolatzaileek LH1 eta DBH4 arteko gaztetxoei gonbita egiten diete larunbatean kirol gunera hurbildu eta kirolaz gozatzera. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Tolosako Arimaz Kamera Orkestraren doinua Brigitarren komentuko kaperan entzungo da ostiralean, 19:30etatik aurrera.

Arimaz Kamera orkestra Brigitarretan

Ostiralean Arimaz kamera orkestra izango dugu Brigitarren komentuan Musika Topaketan V. edizioaren barruan.

Maiatzaren 28an, arratsaldeko 19:30ean, Amaia Arostegi Eguzkiza flautistarekin eta Iñaki Letamendia Loinaz txistuarekin izango ditugu Kepa Martínez de Albenizen zuzendaritzapean.

10 urtez lanean

Tolosako Musika Eskolak, orain dela 10 urte sortu zuen Arimaz kamera orkestra, hari-tresnen ikasleen prestakuntza osatzeko asmoz.

Eskolako ikasle eta ikasle ohiez osatuta dago, heziketa-zentroko irakasleen laguntza duelarik.

Durangon, Usurbilen, Tolosan... kontzertu ugari eman dituzte.

Sergio Zapirain, Juan Jose Ocon, Garbiñe Orbegozo besteak beste egin dituzte zuendari lanak, baina egun Kepa Martínez dugu taldearen arduradun.

Kamera Orkestrak duen jarduera esanguratsuen Tolosako Santa Maria kapera musikaren laguntzaile zatearrena da.

Tolosar batek zuzendua

1976an, Tolosan jaio zen Kepa Martínez de Albeniz eta Eduardo Mocoroa kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak. Harez gerotzik, leku batetik bestera ibili da bere prestakuntza hobetu

nahian. Egund Arimaz kamera orkestrako zuzendari izateaz gain, San Ignacio eta Aita Garayoa abesbatzen zuzendaria ere bada.

Bakarlariak

Amaia Arostegi Tolosan jaio zen eta Luis M^º García Artetxeren eskutik musika ikasketei hasiera eman zien. Egund, Tolosa eta Beasaingo Musika Eskoletan zeharkako flauta irakasle da.

Iñaki Letamendia Ormaiztegin jaio zen, eta bertan hasi zituen solfeo eta txistu ikasketak, Tolosan jarraituz. 17 urterekin Tolosako txistularien banda munizipaleko kide bihurtu zen, eta bi urte beranduago taldearen zuzendaritza hartu zuen bere gain. •



Itzaletan gustura zeuden azokara hurbildutako herritarrak.

Herritar ugari Zapore eta Artisautza azokan

Eguraldi paregabea aprobetxatuz, Andatza plaza inguruan herritar ugari ibili da asteburu honetan. Arrazoia, ostegunean hasi eta igandean bukatu zen Zapore eta Artisautza azoka.

Elikagaiak eta artisautza produktuak, hala nola, egurrezko irudiak, bitxiak, Errioxako eta Nafarroako kontserbak edo euskal ogia eta goxoak eskuragarri izan dira Andatza plazan Montajes y Servicios JC2000 enpresak, Udalaren laguntzaz, antolatutako azoka berezi honetan.

Ekintza bereziak

Horretaz gain, ekintza bereziak ere burutu dituzte azoka

honetan. Ostiral arratsaldean, esate baterako, muskuiluen dastatzea egin zen eta larunbatean bazkalorduan, babarrun jana.

Hala ere bertaratutakoek, muskuiluak edo babarrunaz gain beste gauza asko dastatzeko aukera izan dute. Larunbat eguerdian adibidez, txorizoa eta saiheskia parrilan erreta jateko aukera izan zuten.

Eguzki beroaz babesteko gainera, plazaren erdian toldo batzuk ipini zituzten, modu horretan zerbait jan edo edateko jarritako mahaia itzaletan zeuden. Hurbildu direnak beraz, ederki gozatu izan dute azokak eskainitakoa. •



Kontzertu atsegina eskaini zuen Louise Michel taldeak.

Indie, fusion eta musika elektronikoa entzun ziren ostirala gauetan, Xpressionk eta Gazteria sailak antolatzen dituzten Gazte kontzertuetan. Louise Michel Band talde berriak bere azken CDa aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian. Zarautzen du entsegu lekua talde honek eta ostiralean taldearen formazio berria ere aurkeztu zuten kulturetxean CDarekin batera. Taldearen partaideen artean, Jokin Telleria, herriko bateria jolea dugu.

Kirola sustatzeko saioak amaitu dira

Kirol Zerbitzuak alebin mailako adinean dauden neska-mutilentzat garatzen ari den kirola sustatzeko kanpaina amaierara iritsi da.

Larunbatean, Michelingo Kirol Gunearen Atletismoko Moduluan saio berezia egin zen eta ekimenean parte hartzen dutenek ikasturtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan

zuten atletismoko zenbait proba eginenez Ander Peñagarikano eta Veronica Gonzalez begiraleen eskutik.

Amaieran, kirol materiala zozketa-zuzen saioetara maiz joan diren gazte-txoen artean: Ane Felipek kometa eraman zuen etxera, Unai Chavesek patinak eta Iker Hernandezek sari nagusia, bizikleta bat. •



Sariak banatzen udaleko kiroleko zinegotzia egon zen, Fernando Eskoriatza.

Joxe Ramon Unanue BAZpiko prestatzailea

'Meritu handia du ikasi eta gorengo mailara iristen den txirrindulariak'

Aurten hasi da Buruntzazpi txirrindulari eskolako infantil eta jubencil mailako mutiak prestatzen

Joxe Ramon Unanue prestatzen ditu BAZpi Txirrindulari Eskolako jubencil eta infantil mailako mutiak. Bera atletismoan arri zen, pisu jaurkitzan, orain dardokajauritzen ditu) eta gero eskubaloian, herri kiroletan, txirrindularizetan eta futboleko kirolariak prestatzen. Berarekin ibili dira noizbat, besteak beste, Xabier Carbayeta, Almar Zubeldia, Iban Mialoz, Zarrabietia anakak eta Orbea taldeko beste dozena bat txirrindulari, Xabier Mikel Rekonko, Goenatxo, Izeta, Ostolaza... Aurten, Lasarte-Oria eta Usurbilgo txirrindulari gaztekoekin hasi da berriro: abentuan eskatu zitoten eta buru belarri sartu da. Taldeak atak zabalki ditu nahi duenarentzat, "Buruntzazpin ongi etorriak izango dira" esan digu Joxe Ramon Unanuek.

Zer moduz ikusten dituzku mutiak Ba al dater txirrindulariak? Txirrindulari talde ona dauka-gu baina entrenamendu orduan gutxi egiten dute. Meritu handia du-kate estudiorak egin eta profesio-nafetara ateratzen direnrek. Sakinitio handia da.

Hasteko zain adin da on? 9-10 urte. Ikasleko bizitzela zer-bak, kanboak manejaritzen, kur-bak ondo hartzen, pelotioan zuzen nola ibili, beidurrak kendu, ... Pelotioan joan eta karrera talde-bukateak berak meritu handi buruntzazpi txirrindulariak prestatzen. Beste kontu bat da entrena-mendiak egokitu diren ala eta.

Zenbat orduko entrenamendua behar du txirrindulari gazteko batek eguneko? Jubencil batek hiru bat ordu behar izaten du. Beste kontu bat da entrena-mendiak egokitu diren ala eta.

Orain, irazko abentuatortara. Orain, irazko abentuatortara. Orain, irazko abentuatortara. Orain, irazko abentuatortara.

Jon ALTUNA
 Joxe Ramon Unanue espe-riente handiko kirol pres-tilatzailea da. Duela 14 eta 15 urte (1982tik 1992ra) hasi zen inguru-ko txirrindulariak prestatzen, geroa utzi eta herri kirolakoa hainbat kirolaren eta batez ere txirrindularien entrenadore per-sonala izan da. Berak utzi eta lauazpilo urtera taldea diseinatu bazen ere, bere eskutian jarraitu zuten hiruzpalau txirrindulari, tartean orain Italtako Giroan hain ondo arit den Iban Mayo,z, isar-toriatorra. Orain, irazko abentuatortara. Orain, irazko abentuatortara. Orain, irazko abentuatortara.



Joxe Ramon Unanue, infantil mailako txirrindularien bati, abeltzak ematen Usurbilgo indurmaildean.

Eta psikologikaz zer nolako garrantzia du txirrindularizetan? Baina ez bakarrik txirrindulari-koen, Ba aldetsuen jantzi-ekin zuzen. Biak ginen pisu jantzi-ekin zuzen. Beste kiroletan aplikatuta dudan atletismoa aplikatu dugu. **Prestatzea plangintzak nondik ondo datuzte?** Caja Rural eta Orbeak talde profesionaletan eduki zutenen, txirrindulari holandarrak etorri ziren eta haiek baino batera prestatzearekin holandarrek ere bai. Gauza asko ikasi nituen berariekin. Bai zirkulo krosorako eta txirrindularizarako. Eta ikastarok ere egin ditut.

Dardok? Hori kirola al da? Ez, zuzen eta zortzi ordu entrena-tzean ez al da kirola? **Eta lagundu al dituz zuki?** Ez berak ni: nire gerriairekin (mekora gastatuta da eta proie-ktuak ez dituzte) eta oso kirola? **Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.**

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

'Txirrindulariak paper txuri bat dira eta margo eta pintzelak dauzkagu guk, guk egin behar ditugu horiek'

Zaletasunik ba al da hemen? Bai. Hutsunea izan zen, eten erri ziren taldea, eta ondorioz nire buruari eronkari ez me-la jarri zuten iruzki, eta diena bat opor-tur izan. Aritzen naiz. Eurak ni ikusten dute... Ana-kirolean, zer ikusita zaletu dira? Isaldero, eguna joan eta etorri, 15:30etatik 21:00etara umek asko laguntzen, Usurbilak bai. Ez badute laguntzen ez dago ezer egonik. Gustak gure patxo-katik ez ordaintzea besterik ez dute, hori egiten dute.

Dopinak min handia egin dio txirrindularizari, ezta? Bai. **Eta emango al dio buelak?** Ez, diru asko dago eta jokoan. Baina ez bakarrik txirrindula-kirolean, kirol deienen baitan, Maila batera itxi nahi dute, ebentutik ehunera zirkulatu eta diruaren entse-otzari ere itxaron nahi. Badago berea inguratu eta diru beldurra, baina profesionalak diru beldurra ez dute, diru beldurra ez dute.

Zuk zein zaletasun dituzu, txirrindularizaz gain? Kirol gutxiak. Ideia Etxeberria hain-jaezozailera ere entzenatzen naiz Otso. Gijuzkoako one-arrak da, Aurertik entrenatu ditur beste batzuk: Goenatxo, Izeta, Ostolaza... **Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.**

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Jon Alkuna BAZpiko txirrindularia 'Herriko taldea ondo dabil'

Gijuzkoako onentzaritako da seguru. **H**erriko taldean oso gustu-za nabil' esan digu aji-gu txirrindulariak eta gabi Lasarte-Oriako txirrindulariak. 'Tz', ez düt esango inobria zentik, 'asko entzenaten gurean, baina au-ria prestaketa askoz landaigua eta espezializatua dago; Ramonen enigma argia da, oso ondo daukiugu orainago eta es horrela jarraitzen duguru'.

Asko egoten da gaineen, ez al da apur bat gogorra? Zorrotza bada, bai, baina aldi berean oso ulertorra da, badaki txirrindulariak nola sentitzen diren momentu bakoitzetan, zer falta duen edo zer garrantzi deza-ren berak guk maximo emateko eta bertan izaten da, motibazioa eta aldetik, psikologikoki, asko laguntzen duen gizona da.

Iban Mayo handiarren patera iritsiko al da Iban Mialoz? Izen-soa gertakoa duzue, zerbaiz kuno-za gertakoa zitzazuen, ala?

Herriko taldean oso gustu-za nabil' esan digu aji-gu txirrindulariak eta gabi Lasarte-Oriako txirrindulariak. 'Tz', ez düt esango inobria zentik, 'asko entzenaten gurean, baina au-ria prestaketa askoz landaigua eta espezializatua dago; Ramonen enigma argia da, oso ondo daukiugu orainago eta es horrela jarraitzen duguru'.

Iban Mayo handiarren patera iritsiko al da Iban Mialoz? Izen-soa gertakoa duzue, zerbaiz kuno-za gertakoa zitzazuen, ala? Haren patera iritsia esko izan-zan zait, jendea firtzateko haren agazkierak etortzea. Euskalaren batera izan ginen, eta orduan jende asko nahasten zen iriteeran. •



Jon Alkuna BAZpiko txirrindularia. Atzetik Iban Mayo, aurretik Iban Mialoz.

Joxe Ramon Unanue BAZpiko prestatzailea

'Meritu handia du ikasi eta gorengo mailara iristen den txirrindulariak'

Aurten hasi da Buruntzazpi txirrindulari eskolako infantil eta jubencil mailako mutiak prestatzen

Zuk kontrolatzen al dituzu dardok? Aurreana jifritu gutxiak debekatzen diren dardok. Arri eta haragia plantan edo eskuetan, entzaldak eta berdurak, makarroiak eta karrea bezarparen kanbortzeak dardok. Aldapan eta ordekian. Urtea aurteko urteko hobetuta hasi behar dugu, mejoztan ez baldin badira kontu baarra da.

Lehiakortasun eta osasunaren artean ba al da lehia edo arris-kurki? Ez. Zerbat gertatuz gero, muti-dioen akats genetikoren bat eduki beharko du, ez orain, batak eta jaiotzaitik. Baina arisurkuri handiena errotak dira, kurba hartzeko errotak, ez izateko edo pasetatik autoren batak zu pasatzen gertatzen da hor gertakoa da. Baxi eta guk mango eta pin-tzak dauzkagu, guk egin behar ditugu txirrindulari horiek.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Beraz Baitis Kortajenenak bezalako BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak, BAZpiko txirrindulariak.

Eguraldi aldakorra ibilbidean

Pasa den larunbatean, maiatzaren 15ean, 20 lagun inguru Arratetik-Lasarte-Oriara egin zuten martxa. Goizeko 4:30tan autobusa hartu eta ordu eta laurden beranduago martxari ekin zioten. Arrate, Elgoibar, Azkarate, Madarixa, Zestoa eta Aizarnara, bertan hamaiketako egin eta merezitako deskantsua hartzeko. Tortilla eta freskagarriak, energiak berriro errekupeartzeko. Ordu-batak aldera, Lasarte-Oriarako bidea hartu zuten. Martxa luze honi amaiera ederra emateko, afari goxoa egin zuten.

TXINTXARRI

Giro ederra 14 orduko martxan. Giro ederra taldean, baina eguraldia, aldiz, aldakorra izan zen. Goizean, eguraldi zoragarria izan zuten mendizaleek. Arratsaldean, euria, hotza eta kazkabarra lagun izan zuten Lasarte-Oriarako bidean.

Eguna argitu baino lehen abiatu ziren lasarteoriatarrek Arrateruntz. Goiz esnatu eta ilunpetan, baina eguraldi onarekin hasiera eman zioten martxari. Eguzkia ere lagun izan zuten mendizale hauek martxaren lehenengo zatian, baina hamaiketako eta gero, zerua ilundu eta euriahasi zuen.

Santa Engrazi, Andazarrate inguruan hotza eta euri jasa izugarria pairatu zuten ibilaldiako lagunak. Hamar ordu zeramaten ibiltzen eta eguraldiaren bortizkeriak nekea areagotu zuen.

Goizeko solasaldiak, isiltasunean bilakatu ziren. Jendea aterkia eta eskularrekin. Buru makur eta tentuz, pixkanaka-

pixkanaka ibai bihurtutako bideetatik. Ibilbidearen amaiera, eguraldiaren ondorioz, gogortu zen baina aurrera jarraitu zuten herriko mendizaleek.

Arratsaldeko 19:00ak aldera, lasaitasunez, umorez eta broma artean igaro zuten.

Hasiera eta amaiera ederra biz izanaren sentsazioarekin bueltatu ziren.

Momentu txarrak alboratu, eta jada hurrengo urteko ibilaldiaz aritu ziren.

Afaria

Hamalau orduz ibili ondoren, gero, energia berreskuratzeko beharra handia zen.

Lokaztutako arropa kendu, dutxa ederra hartu eta afari goxo batez disfrutatu zuten martxako partaideak.

Legatza, txuleta eta giro paregabea eguneko anekdotei buruz aritzeko.

Bidean umorea eta animoak behera egin bazuten eguraldiaren gorabeheren ondorioz, afarian ibilaldiaren pasarte gogorak anekdota dibertigarrian bihurtu ziren. •



Eguraldi aldakorra Arrate-Lasarte-Oria ibilaldian. Behean goizeko eguzkia, eta goian arratsaldeko euria. Arg. Josu Agirretxe



Ostadarrekoak Zegama-Aizkorri proban



Arg. Ikerne Etxeberria

Eguraldi kaxkarra egin arren, ikusle ugari bildu zen Zegama-Aizkorri mendi maratoia ikusteko. Argazkian, Julen Ollokiegi.

Hotza, euria eta lokatza nagusi izan ziren maiatzaren 16an burutu zen IX. Zegama-Aizkorri mendi maratoian. 500 korrikalarik parte hartu zuten eta herriko ordezkariak ere egon ziren, Ostadar taldeko lau kide.

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia proba gogorra dela ezin ukatu. Aurtan, gainera, elurrari, hotzari, euriari eta lokatzari aurre egin behar izan diete lasterketa honetan parte hartu duten 500 korrikalariak.

Partehartzaile horietako batzuk, gainera, Ostadarreko atletismo saileko kideak ziren, Julen Ollokiegi, Gorka Lasa eta Mikel Izagirre eta Iñaki Sodupe, hain zuzen ere.

Eguraldi kaxkarra egin zuten arren, jende ugari bildu zen ibilbide osoan zehar korrikalariak animatu eta giroa berotzeko

Sailkapena

Faboritoek irabazi zuten 42,195 km-ko mendi proba. Gizonezko mailan, Kilian Jornetek 3 ordu 56 minutu eta 30 segunduko lasterketa egin zuen eta emakumezkoetan, aldiz, Emmanuela Brizzio 4:47:51 marka.

Ostadarreko atletei dagokionez, sailkapenean lehena, Julen Ollokiegi izan zen 5:27:07 denborarekin, Gorka Lasa 5:41:21-an iritsi zen helmugara, 5:48:02 izan zen Mikel Izagirren marka eta Iñaki Sodupek 6 ordu egin zituen lasterka. •

Egunero

Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Erakusketa

MIGUEL A. FELIPEren lanak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.



Astelehena, 24

Zinea

TIERRA BAJO CORRIENTE eta ondoren CLIMATE OF HOPE (Clima de la esperanza) filmak eskainiko dira Osina elkarteak antolatutako EKOZINEMALDIAN. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 28

Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkar-



Ostiralean jam sesioa Jalgin J. 345 taldearekin

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua. Talde donostiar honek jazz, swing eta funk musika estiloak jorratzen ditu batez ere. Taldeko zenbait partaidek maiz hartu dute parte jam sesioetan.

MAIATZAREN 28AN, OSTIRALA
JALGIN 23:00ETAN

teak antolatutako V. Musika Topaketen barruan. Brigitata-
ren komentuan, 19:30ean.

Garagardo azoka

GARAGARDO AZOKA antolatu du Xirimiri elkarteak maiatzaren 28an, 29an eta 30ean. Ostiralean 18:00-23:00; larunbatean 12:00-23:00etara eta igandean 12:00-19:00etan egongo da azoka zabalik. Ukondoa, saltxitak eta hainbat gauza dastatzeko aukera paregabea Xirimiri Elkarteak,

Igandea, 30

Dantza

XXII. DANTZARI TXIKI eguna ospatuko da. Herriko kaleetan zehar, egun osoan.



Astelehena, 31

Zinea

CON EL AGUA AL CUELLO, R.I.P.SOL, CONTRAJUNTA 2007 eta QUIERO SER TORTILLA filmak eskainiko dira Osina elkarteak antolatutako ekozinemaldian. Kulturetxean, 19:00etan.

VIII. Antzerki eta Dantza Astea

Astelehena 24

11:00etan eta 19:00etan

EUSKARAZ

Masajearen ibilaldia, LH-2

Astearte 25

11:00etan eta, 19:00etan

EUSKARAZ

Landa Berriko izarrak, LH-6

6. maila bukatu da, LH-6
40 urte ta gero, LH-1

Asteazkena 26

11:30an, EUSKARAZ

"Dantzaz Blai", Dantza Garaikideko saioa

11:30an eta 19:00etan

EUSKARAZ

Oin Kixoteren abenturak, DBH-1 eta Gonatan eta ero moduan, DBH-2

Osteguna 27

11:00etan eta 19:00etan

EUSKARAZ

Ipotxaren etxea eta Printze urdinaren bila, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko taldeak.

Ostirala 28

22:30an

20/Klownkidetza, helduen 1. taldea
A ze kuadrilla amonak eta hila laburmetraia, helduen 2. taldea.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan maiatzaren 24an, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkazezina da eta odol falta da!

Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etzeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Batxilergoko titulua

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo titulua jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Txakurrak lasai askatzeko parke

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrik egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzuenok Lasarte Albaitaritza klinikan, Zoomania dendan, Buenetxea tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatuzko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen

otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelenen.

Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko

zintzilikarioa, belarrirako beltza eta doratua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta Osakidetza txartel bat.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

‘Dantzak bere lekua bilatu du herrian’

Landaberi Eskolako Maider Oiartzabal, Amaia Navascues, Junkal Perez eta Oihana Pozueta irakasleak pozik daude dantzak Lasarte-Orian izan duen bilakaerarekin.

Dantzak Lasarten hartu duen indarraren erakusleho izan dira ostiraleko desfilea eta aurreko larunbateko ikuskizuna. 120 lagunek egin zuten dantza kultur etxean eta beste 150 inguru haur ari dira euskal dantzak ikasten. Maider Oiartzabal, Amaia Navascues, Junkal Perez eta Oihana Pozueta dira Landaberi Eskolako irakasleak eta beraiek eman digute egiten duten lanaren berri.

Jon ALTUNA

Maider Oiartzabal hasi zen duela urte batzuk Landaberi Antzerki Eskolan bi talderi dantza erakusten eta gaur egun indar handia hartu du Lasarte-Orian. Antzerki eta Dantza Eskola da orain eta 250 lagunetik gora ari dira dantza ikasten. Mainerrek berak ez daki non dagoen gako: "Atzean dagoen lana ezin da ukatu, baina ezingo genuke esan zergatik dabilen hainbeste". Nola ez dakite baina asko "engantxatu" dira. Aurten irakasle hasi den Amaia Navascues harrituta dago: "Nik ez dut eboluzioa ikusi, eta niretzako shocka izan da. Ez da ohikoa, harritu egin nau".

Larunbateko ikuskizunarekin oso pozik daude irakasleak. "Lan asko egin dugu prestatzeko, ondo zuzenduta ere egon daiteke baina gero oholtzara ateratzen direnek dute beren erantzukizuna, eta oso ondo egin zuten bere lana, ez zen arazorik izan, denak atera ziren atera behar zutenen, denak egon ziren egon behar zuten tokian".

Mainerrek azaldu digu orain gutxi arte Antzerki Eskolan barrenean zirela, baina dantza ari dela bere tokia hartzen. "Orain dela bizpahiru urte hasi ginen dantza guztiak egun berean egiten, funtzionatu egin zuen, asmatu egin dugu. Orain dantzak badauka

bere eguna eta bere tartea. Ordura arte antzerkiarekin ondoren egiten genuen".

Emanaldian hamar taldek dantza egin zuten, baina Eskola hori baino gehiago da, orain arte soilik dantza garaikidea erakusten zuten, baina aurten Eskolak euskal dantzak ere erakusten dizkie haur txikiei. Junkal Perez eta Oihana Pozueta ari dira horretan.

Dantzak berritzen

Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailan Maider Oiartzabalek euskal dantzak eta garaikidea uztartzen ditu: "Hau esateak beldurra ematen dit, garaikidean formakuntzarik ez baitute jasotzen, betiko dantzak ikasten dituzte eta berritu egiten ditugu, gaurkotu eta erakargarriagoak egin, baina beti oinarrian tradizionala mantenduz, transmisioa mantendu nahi dugulako".

Berrikuntzak egin eta koreografiak sortzen dituzte, zeharo ezberdinak egitura eta espazio aldetik, "garaikidearen zenbait elementu erabiltzen ditugu, esanguratsuen espazioa, baina ezin esan garaikidea egiten dugunik. Orain arte bi ilara eta borobilak erabili badira, horrekin puskatu eta jolastun dugu".

Dena den Maider Oiartzabalek buruan du "polita litzatekeela euskal dantzekin txikitatik hasi eta bide bat egitea helduetaraino. Egia da, DBHn garaikidea egiteko



250 lagun inguru ari dira, Oihana Pozueta, Amaia Navascues, Maider Oiartzabal eta Junkal Perezekin dantza ikasten.

aukera daukatela, batzuk deseatzin daudela baina agian norbaitek jarraitu nahi du tradizionala egiten eta aukera hori ere eman behar zaie".

Irakasleek adierazi diguteenez sormen lanean irakasle eta dantzariak elkarlanean hartzen dute parte. Amaia eta Maider saiatzen dira dantzarien ideiak gauzatzen nahiz eta gero euren irizpideak izan eta oholtzara zer eraman erabaki: "Azken finean beraien dela sentitu behar dute. Barneratzen ez badute ezingo dute defenditu oholtzara gainean".

Helduen taldeak aurten euren sortu dute dantza eta Junkal Perezen ustez hori izan da politena, "guk asmatu eta sortzea. Gainera horrek lana errazten du. Irakasleak agintzen badizu, agian zaila egiten zaigu memorizatzen, baina zuk asmatzen baduzu errazagoa da, eta gustura ibili gara".

Dantza eskolan gehienak emakumezkoak dira, helduen taldean denak. Amaia Navascuesen ustez, hezkuntza kontua da eta garaia aldatuz doazenez, "mutilak ere poliki poliki ari dira etortzen". Haurren taldeetan badira mutilak, eta DBHn jarraitzeko asmoa dute. Mainerrek dioenez dantza "mutilentzako erakargarria egin behar da, eskaintzen dugunaren arabera etorriko dira, normalean mutilek eta neskek energia ezberdina izaten dute eta".

Baleta ala kirola hurbilago?

Amaiak oztopo bat ikusten du, dantza garaikidea oraindik baletarekin alderatzen dela alegia: "baina dantza garaikidea kiroletik hurbilago dago baletetik baino, oso fisikoa da, salto egin behar da,... eta nik uste ikusten eta ezagutzen duten heinean sartuko direla".

Eskolaren helburua hori ez bada ere irakasleek uste dute Lasarte-Orian atera daitekeela dantzariaren bat. Mainerrek azaldu digunez, "azken finean, ikasle garaian daude gehienak

eta aukera daukate antzerkia eta dantza frogatzeko. Geroago nahi badute izango dute kanpora ikastera joateko aukera".

Eskolak bere kantua estreinatzen zuten Dantzaz Blai ikuskizunean. Alain Espadasek egin du musika eta Maider Oiartzabalek "entzun bezain pronto" pentsatu zuen egokia zela eskolarentzat. Berak egin zuen letra eta gero hainbat adiskideren laguntza izan dute, Makulu Ken taldeko Xabi Herrera eta Inigo Suberbiola, Esne Beltza taldeko Jon Tronbon, Unai Muñoz, Emilio Encinas,... "Giro jatorrean, lagunartean, egin dugu eta pozik gaude. Herrikoek parte hartzea polita izan da".

Abestiak errealtatea islatzen duela dio Mainerrek, "horixe da egiten duguna, dantza eta antzerkia erakusten ditugu, euskaraz, eta denetarik egiten dugu, irekiak gara eta ez dugu mugarik". Kantatzeko eta dantzatzeko erraza da abestia. Ostiraleko desfilean berriro dantzatu eta kantatu zuten. •

GARAGARDO AZOKA XIRIMIRIn

maiatzak 28-29-30 xirimiri elkarte

<p>UKONDOACODILLO SALTXITXAKSALCHICHAS OILASKOHEGOAKALITASPOLLO PATATABIXIAKBRAVAS</p>	<p>SUKALDEKO ORDUTEGIA</p> <p>Ostirala 28 18:00 - 23:00 Larunbata 29 12:00 - 23:00 Igandea 30 12:00 - 19:00</p>
---	---